

Balance de UNICEF de la ofensiva militar israelí “MARGEN PROTECTOR”

Los bombardeos de Israel en Gaza: 400 niños muertos y 2.500 heridos

Casi 400 niños y niñas han muerto y 2.500 han resultado heridos por los bombardeos del Ejército israelí en la ofensiva en Gaza, según la Unicef, que calcula además que unos 370.000 menores necesitan urgentemente ayuda psicológica para poder intentar sobreponerse de alguna manera al trauma vivido. La cifra total de muertos superó las 2000 personas, más de 10.000 resultaron heridas y 20.000 viviendas han quedado destruidas. La operación militar “Margen Protector” se ha dirigido de modo especial contra los niños y niñas de la franja, tal y como muestra el balance de Unicef.

“Si tenemos en cuenta lo que estas cifras representan para la población de Gaza, **es como si hubieran muerto 200.000 niños en Estados Unidos**”, afirmó Pernille Ironside, jefe de la Oficina de Unicef en Gaza.

“Hay que tener en cuenta el tamaño de la franja de Gaza, son 45 kilómetros de largo por entre 6 y 14 de ancho...**no hay una sola familia que no haya sido directamente afectada por alguna pérdida**”, dijo.

“Tengamos en cuenta **que un niño o una niña que tiene siete años ha pasado ya por tres ofensivas, la de 2008-2009, la de 2012 y la de ahora**. Imagínense el impacto que ello puede tener tanto en los más pequeños como en los que ya entienden lo que eso significa”, afirmó.

Ironside se refirió al hecho de que 142 escuelas en Gaza, incluyendo 89 de la Agencia de Naciones Unidas para los Refugiados Palestinos (UNRWA), han sido dañadas por los bombardeos israelíes, y no olvidó los ataques directos a tres colegios de la ONU. 50 centros de salud han sido también diana de los bombardeos israelíes.

“Debemos establecer un nuevo sistema para poder reconstruir todo lo destruido. Hay que acabar con el bloqueo al que Israel somete a Gaza”, urgió.

Es urgente levantar el bloqueo israelí a la Franja de Gaza

Recordó que se necesitarán “**cientos y cientos de millones de dólares**” para reconstruir lo que ha sido destruido **dos veces**, “aunque esta vez ha sido peor que las otras dos juntas”.

¿Por qué se repiten estas atroces operaciones contra el Pueblo Palestino?

Porque las potencias mundiales lo permiten. Más allá de las condolencias, tanto EEUU como la Unión Europea son aliados de Israel y nunca han decretado ningún tipo de sanción, a pesar de los crímenes contra la Humanidad perpetrados de manera abierta y continua. Solo la presión económica internacional, mediante el establecimiento de un sistema de sanciones, puede hacer que Israel cumpla las resoluciones de la ONU.



El Consejo de Solidaridad y Cooperación Internacional de Ermua hace un llamamiento al pueblo de Ermua para apoyar al pueblo palestino. Si puedes, ingresa tu aportación para la compra de medicinas y material sanitario para el pueblo palestino en la siguiente cuenta:

Laboral Kutxa

ES83 3035 0048 64 0480064819

Indicar: “Ermua con Palestina”

El apoyo económico se sumará a los 3.600 € que va a destinar el Ayuntamiento de Ermua y se enviarán a los centros de salud de Palestina a través de HEALTH WORKERS COMMITTEES (Comités de Trabajadores de la Salud de Palestina)



**Ermuko nazioarteko lankidetzeta
eta elkartasun kontseilua**
Consejo de solidaridad y cooperación
internacional de Ermua

ERMUA PALESTINAREKIN



Urriak 27 Astelehena

JUANI RISHMAWI

Health Workers Comitees-eko kidearen hitzaldia

17:00 Kafe solasaldia- Emakumeen Topalekuan

19:00etan Hitzaldia LOBIANOn

'MARJINA BABESLEA'

eraso militar israeldarraren gaineko

UNICEF-en balantzea

Israelen bonbardaketak Gazan: hildako 400 haur eta zaurituriko 2.500

Israelgo Ejertzitoak Gazan burututako bonbardaketek ia 400 haur hil eta 2.500 zauritu dituzte, Unicef-en arabera; gainera, erakundeak kalkulatu du 370.000 adin txikiko inguruk laguntza psikologiko urgentea behar dutela bizi izandako trauma nolabait gainditzeko saiatu ahal izateko. Hildakoen kopuru osoa 2.000 lagunetik gorakoa da, 10.000 pertsona baino gehiago zaurituak izan ziren eta 20.000 etxebizitza suntsituta geratu dira. "Marjina babeslea" operazio militarra bereziki zuzendu zaie zerrendako haurrei, Unicef-en balantzeak erakusten duen bezala.

Gazako biztanleriari dagokionez kopuru horiek dakartena aintzat hartuta, "Estatu Batuetan 200.000 ume hil balira bezala da", adierazi zuen Pernille Ironsidek, Unicefen Bulegoburuak Gazan.

"Kontuan hartu beharra dago Gazako zerrendaren tamaina, 45 kilometroko luzera eta 6 eta 14 kilometro bitarteko zabalera ditu... ez dago familia bakar bat ere ez duena zuzeneko galerarik jasan", esan zuen.

"Izan dezagun kontuan zazpi urteko mutiko edo neska batek dagoeneko hiru eraso jasan dituela, 2008-2009koa, 2012koa eta oraingoa. Imajinatu horrek txikiengan zein dagoeneko horrek esan nahi duena ulertzen duten neska-mutilengan izan dezakeen eragina", erantsi zuen.

Ironsidek aipatu zuen bonbardaketa israeldarrek Gazako 142 eskola, Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren (UNRWA) 89 barne, hondatu dituztela, eta ez zituen ahaztu NBE-ren hiru ikastetxeren kontrako zuzeneko erasoak. Era berean, 50 osasun-zentro bonbardaketa israeldarren jomuga izan dira.

"Sistema berria ezarri behar dugu suntsituriko guztia berreskuratu ahal izateko. Premiazkoa da Israelek Gazari inposaturiko blokeoarekin bukatzea", azpimarratu zuen.

Urgentea da Gazako Zerrendaren kontrako blokeo israeldarra altxatzea

Gogorarazi zuen "ehunka eta ehunka milioi dolar" behar direla birritan txikitu dena berreraikitzeke, "oraingoan aurreko biak batera kontuan hartuta baino okerrago izan bada ere".

Zergatik errepikatzen dira Herri Palestinarren kontrako operazio basati hauek?

Munduko potentziek onartu egiten dutelako. Dolumenez harago, AEB zein Europako Batasuna Israelen aliatuak dira, eta inoiz ez dute inolako zigorrak ezarri nabarmen eta etengabe gauzaturiko Gizateriaren kontrako krimenak izan arren. Nazioarteko presio ekonomikoak baino ezin du behartu Israel, zehapen-sistema bat ezarri, NBE-ren ebazpenak betetzera.



Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetzak Batzordeak Herri Palestinarrari laguntzera deitzen du Ermuko herria. Ahal baduzu, egin zure ekarpena Herri Palestinarrarentzako botikak eta osasungintzako materiala erosi ahal izateko, ondoko kontuan:

Laboral Kutxa

ES83 3035 0048 64 0480064819

Aipatu: "Ermua Palestinarekin"

Laguntza ekonomikoa Ermuko Udalak emango dituen 3.600 €-ei batu eta Palestinako osasun-zentroetara bidaliko da HEALTH WORK COMMITTEES-en (Palestinako Osasun Langileen Batzordeak) bidez



Ermuko nazioarteko lankidetzak eta elkartasun kontseilua
Consejo de solidaridad y cooperación internacional de Ermua

ERMUA CON PALESTINA



Lunes 27 de Octubre

Charla de **JUANI RISHMAWI**
miembro de Health Workers Committees

17:00 Café tertulia en la Casa de la Mujer

19:00 Charla en LOBIANO